



Ospitalea

Centre Départemental d'Éducation au Patrimoine
Departamenduko Ondare Hezkuntzarako Zentroa

ESKAINTZA IKASLEENTZAT

« Saltus Vasconum, Ipar Euskal Herria erromatar garaian » erakusketaren kari, Ospitalea Departamenduko Ondare Hezkuntzarako Zentroak erakasleei eta ikastaldee zuzendutako eskaintza proposatzen du.





OSPITALEA

Baxenabarrereren erdian kokatua, Baigura mendiaren oinetan, Irisarriko herriak Ospitalea Departamenduko Ondare Hezkuntzarako Zentroa aterbetzen du. Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseilua da jabea eta lehengo Maltako Ospitaleko Zaldunen komanderia hori Monumento Historiko gisa ekarria da.



2002-az geroztik idekia, zentroak helburu gisa du Euskal Herriko ondarea, historia eta kultura ezagutaraztea animazioak, erakusketak, bisitak eta helduei zein haurrei zuzendutako tailerrak antolatuz.

Ospitaleak ikastetxeei zuzendutako eskaintza berezia garatu du (zikloak 2-5):

- ondare egonaldiak gualdia barne,
- eguneko edo egun erdiko animazioak Irisarrin edo kanpoan,
- bisitak eta arte tailerrak.

SALTUS VASCONVM

EDUKIA

Aurten, Departamenduko Ondare Hezkuntzarako Zentroak K.a. I. mendetik K.o. V. mendera arteko erromatar garaiko Euskal Herriari buruzko erakusketa aurkezten du. Bigarren Burdin Aroaz geroztik, populazioaren egoerarekin erromatar presentzia aitzin, Erdi Aroaren hasierara arte, Erromatar Inperioaren administraziopeko lurraldearen konkista antolaketatik pasatuz, 600 urte baino gehiagoko historia da erakusketak zeharkatzen duena.



Erakusketaren ibilbideak agerian uzten ditu gune arkeologikoak, lurraldean aurkitutako ondare objektuak, baina baita ere Historia hau hobeki ezagutarazten laguntzen duten ikertzaile eta arkeologo askoren lan suharra ere.

Euskal Herrirako erromatarren garaiko objektu arkeologiko nagusiak biltzen ditu erakusketak. Batzuk lehen aldiz publiko zabalarari aurkeztuak dira erakunde eta elkarte partaideek emandako aparteko maileguei esker.

ZERTARAKO HORRELAKO GAIA ?

Narrazio historiko handietatik urrun egona luzaz, Pirinioetako piemonte eskualdea, Erromatarrek Saltus Vasconum izendatua, inposatzen da gaur egun osoko ikasgai gisa. Azken ikerketek, mugaz gaindiko eta unibertsitateen arteko esparruan eginak, tokiko populazioak Erromak ezarritako arau berrietara egokitzearen aztarnak argira eman dituzte.

Kulturen arteko elkarriketa hau, aldaketa progresibo hauek, erakusketa honek lehen aldiz biltzen dituen objektu arkeologikoetan agertzen dira, erakunde eta ikertzaile engaiatuen lankidetzak bikainari esker.

Kulturen arteko elkarriketa hau, aldaketa progresibo hauek, erakusketa honek lehen aldiz biltzen dituen objektu arkeologikoetan agertzen dira, erakunde eta ikertzaile engaiatuen lankidetzak bikainari esker.





IBILBIDE DIDAKTIKOA

- **Sarrera ikuspegi orokor batendako**
- Euskal Herria erromatar presentzia aitzin (Bigarren Burdin Aroa)
- Erromatar Antzinaroko lehen garaiak (K.o. I. eta II. mendea) (administrazio, politika eta lurralde antolaketa, bizi ekonomikoa, erlijioak eta sinesmenak, hizkuntza)
- Antzinaro berantiarra (III.-V. mendea) (Novempopulania probintziaren sortzea, kristautasunaren hastapenak, germaniar migrazioak)
- bederatzi gune arkeologikoak aipatuak : Banka eta Mehatzeko lepoa, Larla, Itsasu, Zaldua, Donazaharre, Baiona, Oiasso (Irun), Getaria.



ANTZINAKO OBJEKTUAK


Euskal Herrian aurkitutako hiru erromatar harri bakarrak :

- Hazparneko idazkuna (Novempopulania)
- Atharratzeko aldare zizelkatua
- Getariako gazitze asken epitafio erromatarra

Donazarreko « sigillées » motako ontziak, Antzinako berantiarreko armak, Bigarren Burdin Aroko zeramikak eta txanponak ; Irulegiko eskuaren kopia eta Akizeko Borda museoan atxikia den Mercure estatua.



IRUDI DIDAKTIKOAK



Mapa ilustratu batek erakusketan aurkeztu interes puntu desberdinak baita Pirinioetako erromatar bidea aipatzen ditu. Bederatzi gune arkeologiko irudikatuak dira erakusketan haurrak antzinako garaietan egon zitezkeen tokietan murgildu ahal izateko.

BIDEO INTERAKTIBOAK

- Erromatar konkistako etapa nagusiak
- « Togatus » (estatua togaz) baten aurkitzea Donazarren
- Arkeologia prebentiboaren arau nagusiak





GURE ESKAINTZA

Erakusketaren bisita iruzkindua

Erakasleak hautatzen ahalko du erakusketaren bisita egitea autonomian edo bitartekari batekin.

AUTONOMIAN
(erakasleak berak egiten du bisita)



60-120 minuten artean



Urririk



35 perts. gehienik

OSPITALEKO
BITARTEKARI BATEKIN



60-120 minuten artean



4€ ikasleka
3€ kolegioko ikasleka



35 perts. gehienik

Erakusketaren bisita iruzkindua eta tailerra erromatar erredola baten sortzeko

Ospitaleko bitartekari batek erakusketaren bisita segurtatzen du 45 minutuz. Ondotik, ikasleek tailer bat segituko dute erromatar soldadu baten erredola sortzeko.



2 oren



4€ ikasleka
3€ kolegioko ikasleka
Urririk laguntzaileentzat



35 perts. gehienik





Erakusketaren bisita iruzkindua eta gune arkeologiko baten deskubritzea

Saltus Vasconum erakusketaren bisita eta ondotik Donazarreko ur onen deskubritzea.

 Piknika hartu. Ikastetxeak garraio gastuak ordaindu behar ditu.



Egun bat

6€ ikasleka



5€ kolegioko ikasleka

Urririk laguntzaileentzat



35 perts. gehienik

OSPITALEKO « ERROMANIZAZIOA » ONDARE EGONALDIA

Egonaldiaren denboran, ikasleek I. eta V. mendeen arteko Euskal Herria ezagutuko dute. Irisarritik hurbil diren gune batzu, adibidez Urkuluko dorre-trofeoa edo Donazarreko ur onak bisitatuak izanen dira. Tailer bat proposatua da ondotik erromatar soldadu baten erredola sortzeko baita antzinako txanponen markatzeko asmoz.



2 edo 3 egun



35 perts. gehienik



2 eguneko egonaldia

50€ ikasleka

45€ kolegioko ikasleka

Urririk laguntzaileentzat

3 eguneko egonaldia :

79€ ikasleka

71€ kolegioko ikasleka

Pagatuz laguntzaileentzat

Garraio diru laguntzak posible



OSPITALEA ZENTROA

GUREKIN HARREMANETAN SARTZEKO



05.59.37.97.20



ospitalea@le64.fr



www.ospitalea.fr



Plaza, 64780 Irisarri

